

SOZIALISMOA ETA GIZARTEA

Sozialismoa, eta konzientzia forma politiko guziak, interes batzuek eta premia batzuek sortarazi dituzte.

Baina premiak eta interesak ez dira nonahi berdinak. Herri bakoitzak bere era du. Bere modura egin du historia. Eta Euskal Herria ere bere erako eta diferente da. Bere egoeran dago. Hori da, euskal sozialismoak ahaztu ezin duen gauza bat, Kongorako edo Djibutirako berdin balio duena izan nahi ez badu.

Gipuzkoako edozein langilek esan dezake, lantegian hamar ordu sartu eta gero: «euskara batzea eta moderatzea ez zait niri tokatzen. Euskal kultura ez da nire zeregina»... Esan ere, langile burutsuak seguru asko horixe esango du. Baina ezin esan dezake gauza bera sozialismoak: «euskal kultura ez da nire zereginik». Hori egiten badu, egin beharrezko zeregin batzuk besteei uzten dizkie. Eta «beste» horiek beharrezkotzat aitortzen ditu, zeharka, gizartegintzarako.

Euskal sozialismoa beti desbentajan aurkituko da, eta, historikoki begiratuta, interes gutikoa izango da, gizarte sail edo klaseren baten interesak bakarrik espresatzen baldin baditu, gizarte osoari buruz planteamolderik egitea besteri utziaz. Gizarte osotasunean mugimendu marjinal bezala definitzen du bere burua, horrela jokatuz. Sozialismoa, klaseren batenik baino gehiago, historiaren eta gizarte osoaren teoria da. Egia da: Nazio beregaintasuna finkatzea, herri hizkuntza kulturbide moderno bihurtzea, askatasun «formalak» konkistatzea, eta abar, ez dira proletargoaren zereginak izan. Burgesiaren eginkizunak izan ziren, historiari bagagozkio, herrialderik gehienetan behintzat. Hasi ere, proletargoaren burruka sozialista, burgesiaren berea egin eta gero, hasi bait zen. Baina burgesiaren burruka hura gizartearena eta gizadiarena ere bazen. Une hartan gizadiaren interesak burgesiaren zeramatzkien eta. Baina burgesiaren halakorik egin ez duen tokian, egin gabe utzi duen tokian, sozialismoari hura ere egitea tokatzen zaio, «bere» interes partikularretara mugatu gabe, eta zeregin haiek beti ere burgesiari utzi gabe.

Prensa askatasunaren defentsa, esate baterako, ezin izan daiteke, Frantzia batetan, burgesen eginkizuna soilik. Alderantziz, sarri eta sarri, sozialistek burgesen marrukerien kontra defendatu beharko dute prentsa askatasuna.

Euskal sozialismoak esaten badu: «Nazio arazoak eta konpontzea, hori burgesiari tokatzen zaio», orduan, ez du zer kejurik, arazo sozialik sortzen denean, burgesiaren horrelaxe erantzuten badio: «utz problema horiek orain, nire zeregina Nazio arazoa konpontzea da eta. Lehenengo hori egiten utz izadazue, eta gero ikusiko dugu arazo sozialak nola burubidatu». Badago, bai, horixe esan ohi duenik. Eta zenbait sozialismo deterministak arrazoi eman behar lioke.

Historia ez da edonorako beti ordu bera jotzen duen erlojuzarren bat. Hirugarren Munduak ezer erakutsi badu, horixe erakutsi du. Vietnamen burgesiaren konpondu gabe zeuden arazo guziok, Nazio askatasunetik hasi eta kultur hizkuntzaraino. Sozialismoak denok beregain hartu ditu. Hau da: so-



zialismoak beregain hartzen du historiaren responsabilitatea.

Bestalde, proletargoaren interesen planteamolde «garbia» egin duen inon ez da sozialismoa nagusitu. Nagusitu den toki guzietan, bereak eginak zituen «errebindikazio burgesak» ere. Hein batetan burgesiarekin koinzidituz jokatu du hortakoz. Hori nahitaezkoa zen Errusian, eta areago Hirugarren Munduan. Iraultza burgesik egin gabe zeuden eta. Hemen halaxe gaudela aparte, honez gero ikusia dago, hori ez zela, historiabide bihurri espezial batzuetan, salbuespen gisa, ezinbesteko gertatu den zerbait soil. Koinzidentzia hori ez zen gizadiaren (edo gizarte haren) interes orokarretan baizik gertatzen. Historian, askatasun politikoak lortu dituen burgesia izango zen, izan; lor zitezkeen unean, interesatuena eta lor zitezkeenena bera zelako. Baina askatasun horietan interesatua ez dago burgesia bakarrik, gizarte osoa baizik. Horrexegatik kritikatu den dugu burgesia: askatasun horiek beretzat bakarrik hartu dituelako, guzientzako bihurtu gabe. Prentsa askatasuna, etc., burgesiari bakarrik in-

teresatzen zaizkionak izango balira, kritikak ez luke zentzurik. Komunistek Italian eta Frantzia ikusi dute hori. Eta argitzen dutenez, burgesiaren konkista horiek ez dago atzera galtzerik: gizadiaren eta gizartearen konkistak dira eta; egin, une jakin batetan, konkistaok burgesiaren egin bazituen ere, eta batez ere beretzat bakarrik egin.

Burges eta proletarioen artean kontradizioak seinatu beharrezkoak dira. Baina bidegabezko da, orduan ala ezorduan horixe besterik inoiz ez aipatzea, gizonaren egitekoak batzuk burgesiaren eta besteak proletarioei banatuz, gizartearen funtsezko batasuna eta gizon orok dituen obligazioak ahaztuz. Komunista klasikoak sarri burlatu dira, gizarte orokarrak eta gizon guziren interesik aipatu dituztenez. Abstrahikuntza hutsa omen da hori. Hori zenbait marxismoren probintzialismoa. Xede burgesak eta helburu proletarioak beti elkarri kontrajartzea, alternatibismo primitibo batez gainera, funtsezko gizarte batasuna ukatzea da eta aurrerabide historikoa ignoratzea da. Gizadi guziaren interesik dagoen bezalaxe, gizarte baten interes orokarrak ere badago. Bestela ez historiaz, ez aurrerabidetaz, mintzo gitezke. Dretxo Naturalen aldeko burruka burgesiaren egin zuen. Proletarioak ez ote du Dretxo Naturalen alde saiatu beharrik?

Euskal sozialismoak, Euskal Herria nola dagoen ikusi, eta gizarte osoaren planteamoldea egin beharko du. Ezin «langilerismoan» eror daiteke. Bere-bere arazoan eskusibismoan. Ezin doktrinarismoan eror daiteke, teoriatan bururatu den historiabide ideal baten arabera: burgesiari hau egitea zegokion, proletargoari beste hori, eta abar. Hots, «hauzi sozialaren» planteamolde hutsetara ezin muga. Leku gehienetan eginkizun nagusi bezala, horixe tokatu bazaio ere, European behintzat, hori ez da derrigor proletargoaren burruka bakarra. Produzio harremanen problemari bezalaxe, euskal nazioaren problemari ere, kulturaren problemari ere, soluzioren bat eskaini beharko die. Sozialismoa gizarte osoaren eginkizuna bait da —proletargoarena aurren-aurrenik— ez klase batena soil. Burgesiaren burruka eta aurrerapenak gizarte osoaren burruka eta aurrerapenak ziren. Proletargoaren kurrakak gizarte osoaren burruka izan behar du. Zentzu hori du, eta ez besterik, aspaldiko tesi hark: gizarteak iraultza eginen duela, proletargoa buru duenari. Nolatan hartu proletargoa hura, gizarte osoaren interesak beregain hartzen ez baditu?